



Espediente zk. : 2023ZAKO0005

Erreg. Data :

Erreg. zk : 000000

Gaia : Udal Eskola Kontseiluaren 2022ko memoria

Eskatzailea : ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK) P2007200E

Kokalekua: ERRETERIA

Udal Eskola Kontseilua AHOLKU KONTSEILUAREN MEMORIA

URTEA: 2022

Dokumentu honetan jasotzen da **Udal Eskola Kontseilua** aholku kontseiluak **2022.** urtean izandako jardueraren laburpena.

Urteko bilera kopurua. 2022 urtean, Eskola kontseilua 4 aldiz bildu da, zehazki data hauetan:

- Otsailaren 7an.
- Martxoaren 28an.
- Ekainaren 16an.
- Abenduaren 1ean.

Parte hartu dutenak. Bilera hauetan ondorengo entitateek parte hartu dute:

- Bizarain HLHI guraso ordezkaria
- Orereta Ikastola guraso ordezkaria
- Koldo Mitxelena HLHI guraso ordezkaria
- Koldo Mitxelena BHI guraso ordezkaria
- Telleri-Alde guraso ordezkaria.
- Koldo Mitxelena BHI zuzendaritza ordezkaria
- Koldo Mitxelena HLHI zuzendaritza ordezkaria
- Telleri-Alde zuzendaritza ordezkaria
- Gamon HLHI zuzendaritza ordezkaria
- Gamon DBHI zuzendaritza ordezkaria
- Bizarain irakasle ordezkaria
- Orereta Ikastola zuzendaritza ordezkaria
- Gamon HLHI ikasle ordezkariak.



- Koldo Mitxelena HLHI ikasle ordezkariak.

- Orereta Ikastola ikasle ordezkariak.

Gonbidatu gisara, ondorengo kanpo eragileak izan dira:

- Ongi Etorri Eskolara proiektuko kidea.

- HUHEZI unibertsitateko eta Elhuyar aholkularitzako kideak.

Alderdien ordezkari gisara ondorengoek hartu dute parte:

- EH Bildu-ren ordezkaria.

- PSE-EEren ordezkaria.

- EAJ-ren ordezkaria.

Udalaren ordezkari gisa 2 pertsona aritu dira: Hezkuntza zinegotzia eta Hezkuntza teknikaria.

Jorratutako gai nagusiak. Urtean zehar jorratutako gai nagusiak hauek izan dira:

1) *2021/2022 eta 2022/2023 ikasturteen Departamentuko plangintzaren partekatzea eta kontrastea; Bestek beste, 2022ko aurrekontuaren berri ematea eta 2023ko aurrekontu proposamena aurkeztea.*

2) *Tokiko Eskolaratze batzordea:*

Errenteriara etorri berriak diren eta, ondorioz, ohiko matrikulaldiaz kanpo matrikulatzen diren ikasleen banaketa desorekatua orekatze bidean martxan jarritako esperientzia pilotuaren diseinua, abiatzea eta jarraipena landu dira. Azken Kontseiluan, baita pilotajearen itxiera bera ere, bertan behera uztearen arrazoiketa partekatua eta ebaluazioa landuz.

3) *Ongi Etorri eskolara egitasmoa:*

Koldo Mitxelena HLHI-ko guraso elkarteak proposatutakotik abiatuta, Tokiko Eskolaratze Batzordearen lanketaren osagarri ikusi da programa eta berau aurkeztu da. Etorri berriak diren familiak bertako familiekin bikotetzen diren kulturarteko programa da, zeinak familia hauen gizarteratzean eragiteko bokazioa duen. Lehen esperientzia Koldo Mitxelena HLHI-n jarri da martxan eta lorpenak zein emaitzak partekatu dira Kontseiluan. Baita 2022/2023 ikasturtean programa ikastetxe guztietara zabaltzeko aukera aztertu, hobetsi eta planifikatu ere.

4) *Harrera Bulegoa:*

Tokiko Eskolaratze Batzordea sortzearekin batera sortu den Harrera Bulegoaren funtzionamendua aurkeztu da eta ekarpenak jaso dira.

5) *Ekitatearen aldeko Herri Ituna:*

Ekitatearen inguruko lanketa bat egitea hobetsi da, ekitate ezak identifikatuzetik hasita, hezkuntza komunitateko partaide ezberdinekin. Familiekin eta ikasleekin egin bezala, Udal Eskola Kontseiluko kideekin ere lan-saioak



burutu dira ikasturtean zehar. Kontseiluan lanketa honek emandako emaitzen itzulketara egin da, aurrera begira landu beharrekoak identifikatzeko.

6) Udal Eskola Kontseilu Gaztearen sorrera:

Ikasleen partaidetza sustatzeko, 2022/2023 ikasturtean Udal Eskola Kontseilu gaztea sortzea erabaki da. Kontseilu hau Udal Eskola Kontseiluaren azpi-batzordeetako bat izango da. LH 6-ko eta DBH-3-ko ikasleekin abiatuko da lanketa eta ekitate eza gainditzeko estrategiak izango ditu langai lehen ikasturteak.

Udal Eskola Kontseiluaren urteko 4 bilerekin gain, azpi-batzordeak ondorengo maiztasunarekin bildu dira:

- Zuzendarien foroa: 7 bilera (otsailak 10, martxoak 9, martxoak 22, apirilak 27, ekainak 28 eta azaroak 11).
- Familien saretzerako espazioa: 4 bilera (maiatzak 17, ekainak 1, azaroak 2 eta azaroak 23).
- Hezkuntza mahaia: 4 bilera (urtarrilak 28, martxoak 23, ekainak 8 eta azaroak 5).

Espazio hauetan jorratutako gaien berri eman da Aholku Kontseiluaren bilerekin.

Memoria hau udal gardentasun atarira igoko da, guztien ezagutzarako. Halaber udal kudeaketa txostenen urteko memorian ere txertatuko da.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Izptua: Gazteria eta Hezkuntza teknikaria

Goiatz Labandibar Arbelaitz

Aholku kontseiluko presidentea

Itziar Ostolaza Galdos



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU75d2de1a-1eb2-4daf-991f-f1f0a2fe1b17**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZAKO0005-URTEKO MEMORIA_eus/MEMORIA ANUAL_eus (ERREENTERIAKO